

Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta (DAMI)

Emaita nagusiak. 2020. urtea

Nafarroako Foru Komunitatean ia 50.000 pertsonak (78,1 mila biztanleko) esan zuten desgaitasun motaren bat edo mugaren bat dutela

Mugikortasun-arazoak izan ziren desgaitasun mota ohikoenak

2022ko maiatzaren 27a


Nafarroako etxeetan bizi diren 49.862 bizilagunek, guztira, esan zuten desgaitasuna edo mugaren bat dutela 2020an. Sexuaren arabera, 24.140 gizonak ziren eta 25.722, emakumeak

Desgaitasunak edo mugak mila biztanleko 78,1 pertsonari eragiten zien, eta neurri handiagoan emakumeei (79,8) gizonei (76,4) baino

Adinaren arabera, etxeetan bizi eta desgaitasuna edo muga duten pertsonen % 77,5ek 55 urte edo gehiago zituen. Pertsona horietatik, bostetik hiru emakumeak ziren

1. GRAFIKOA

Biztanleria osoaren eta desgaitasuna duten biztanleen piramidea. Ehunekoak



Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00


DESGAITASUNA SEI URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONETAN

2020an, 48.840 izan ziren desgaitasuna duten sei urtekoak eta gehiagokoak; 23.232 gizonak eta 25.608 emakumeak.

Desgaitasun-tasa 76,6 izan zen mila pertsonako gizonetan, eta 82,6 mila pertsonako, emakumeetan.

2. GRAFIKOA

Desgaitasuna duten sei urteko eta gehiagoko pertsonak. Tasak mila biztanleko



Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..

Adin-taldeen arabera, desgaitasun-tasak handiagoak izan ziren 65 urte arte gizonen artean eta, emakumeetan, adin horretatik gora. Sexuaren araberako alderik nabarmenena 80 urtetik aurrera izan zen.

DESGAITASUN MOTA

Mugikortasun-arazoak izan ziren desgaitasun-mota ohikoenak sei urteko eta gehiagoko pertsonen artean, mila biztanleko 42,9ko tasarekin. Sexuaren arabera, tasa handiagoa izan zen emakumeen artean (44,9, eta gizonen artean 40,8).

1. TAULA

Sei urteko eta gehiagoko pertsonen desgaitasun mota. Tasak mila biztanleko.

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
GUZTIRA	79,6	76,6	82,6
Mugikortasuna	42,9	40,8	44,9
Etxeko bizitza	35,1	32,1	38,0
Entzumena	25,9	22,6	29,1
Autozainketa	25,7	22,7	28,6
Komunikazioa	17,9	19,0	16,7
Ikusmena	15,5	16,5	14,4
Ikaskuntza	12,7	13,1	12,4
Elkarreaginak eta harreman pertsonalak	11,5	11,4	11,5

OHARRA: Pertsona bera desgaitasun-kategoria bat baino gehiagotan egon daiteke.

Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

Desgaitasuna duten pertsonen % 53,9k mugitzeko zailtasun handiak zituen, eta % 44,1ek etxeko bizitzarekin lotutako arazoak zituen. Ehuneko horiek igo egin ziren eta % 58,0 eta % 65,1 izan ziren desgaitasuna duten 80 urteko eta gehiagoko pertsonetan, hurrenez hurren.

2. TAULA

Sei urteko eta gehiagoko pertsonen desgaitasun mota, adin-taldean arabera. Ehunekoak.

	Guztira	6 eta 64 urte bitartean	65 eta 79 urte bitartean	80 urtekoak eta gehiagokoak
GUZTIRA (pertsonak)	48.840	16.036	14.431	18.372
Mugikortasuna	53,9	48,2	54,8	58,0
Etxeko bizitza	44,1	30,6	32,2	65,1
Entzumena	32,5	22,2	37,6	37,5
Autozainketa	32,3	26,8	25,8	42,2
Komunikazioa	22,5	20,9	13,4	31,0
Ikusmena	19,4	19,9	14,4	22,9
Ikaskuntza	16,0	25,0	6,2	15,8
Elkarreraginak eta harreman pertsonalak	14,4	20,5	3,9	17,4

OHARRA: Pertsona bera desgaitasun-kategoria bat baino gehiagotan egon daiteke.

Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..

Desgaitasunen intentsitate-mailak desberdinak izan daitezke, pertsonak lanak egiteko duten zailtasunaren arabera. Nafarroan, 26.556 pertsonak adierazi zuten intentsitate-maila handiena zutela desgaitasun motaren batean eta laguntza teknikorik edo pertsonalik jasotzen ez zutela (14.121 emakumek eta 12.436 gizonak). Autozainketarako zailtasunek (% 70,1), etxeko lanak egiteko zailtasunek (% 68,8) eta elkarreragiteko eta harreman pertsonaletarako arazoek (% 67,5) intentsitate-maila handiagoa erakutsi zuten.

Desgaitasuna duten pertsonen % 76,8k nolabaiteko laguntza teknikoa, pertsonala edo biak jasotzen zituzten desgaitasunaren intentsitatea murrizteko (% 80,4 emakumeen kasuan eta % 72,8 gizonen kasuan). Laguntza erabiltzean, larritasun-maila jaitsi egiten da, eta pertsona horiek maila baxuagoetara igarotzen dira. Laguntzak erabiltzean intentsitate maila handiena zutela adierazi zuten pertsonak 15.727 izan ziren; 9.109 emakumeak eta 6.618 gizonak.

3. TAULA

Sei urteko eta gehiagoko biztanleak, intentsitate-maila handienaren arabera, laguntzekin eta laguntzarik gabe, sexuka.

	Laguntzarik gabe			Laguntzekin		
	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
GUZTIRA	48.840	23.232	25.608	37.510	16.919	20.591
Zailtasunik gabe	-	-	-	5.961	2.728	3.233
Desgaitasun moderatua	7.548	3.217	4.332	10.454	5.404	5.050
Desgaitasun larria	14.435	7.580	6.855	5.368	2.169	3.199
Erabateko desgaitasuna	26.556	12.436	14.121	15.727	6.618	9.109
Ez da jasotzen	300	0	300	0	0	0


Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..



Desgaitasun motaren arabera, autozainketarako eta etxeko bizitzako lanak egiteko zailtasunak dituzten pertsonak jaso zuten laguntza gehien (hamarretik bederatz), eta, ondoren, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak (hamarretik zortzi).

3. GRAFIKOA

Laguntzak desgaitasuna motaren arabera. Ehunekoak



Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..

ENPLEGUA ETA DESGAITASUNA

2020an, desgaitasuna duten 14.662 pertsona zeuden, guztira, lan egiteko adinean (16 eta 64 urte bitartean). Kopuru horretatik, 9.312 gizonak ziren eta 5.350, emakumeak.

Pertsona horietatik, lautik batek esan zuen lanean ari zela (gizonen % 26,8 eta emakumeen % 22,8), ia 4.000 pertsonak.

Desgaitasun motaren arabera, 16 eta 64 urte bitarteko landunen artean entzumen-arazoak eta mugikortasun-arazoak izan ziren ohikoenak; izan ere, % 37,9k eta % 22,6k izan zituzten, hurrenez hurren. Ezin da analisi hori sexuaren arabera egin, laginaren tamaina txikia delako.

4. TAULA

Desgaitasun mota 16 eta 64 urte bitarteko landunen artean. Ehunekoak.

	Guztira
Ikusmena	19,4
Entzumena	37,9
Komunikazioa	11,5
Ikaskuntza	3,1
Mugikortasuna	22,6
Autozainketa	2,9
Etxeko bizitza	10,7
Elkarrengin eta harreman pertsonalak	20,3

Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

ETXEAK

Nafarroako etxeetako % 17,1en, gutxienez desgaitasuna duen pertsona bat bizi zen 2020an. 12.000 etxe baino gehiagotan, desgaitasuna duen pertsona bakarrik bizi zen.

5. TAULA

Etxeak tamainaren eta desgaitasuna duten bizilagunen kopuruaren arabera. Balio absolutuak eta ehunekoak.

	Etxe kopurua	Desgaitasuna duen pertsonarik ez zuten etxeak	Desgaitasuna duen pertsonarik ez zuten etxeen ehunekoa	Gutxienez desgaitasuna duen pertsona bat zuten etxeak	Gutxienez desgaitasuna duen pertsona bat zuten etxeen ehunekoa
GUZTIRA	259.207	214.990	82,9	44.217	17,1
1 kide	70.730	58.460	82,7	12.270	17,3
2 kide	76.913	60.622	78,8	16.291	21,2
3 kide	49.703	40.861	82,2	8.842	17,8
4 kide	45.997	42.112	91,6	3.885	8,4
5 kide edo gehiago	15.864	12.936	81,5	2.928	18,5

Iturria: Nastat, INEren Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestan (DAMI) oinarrituta..



METODOLOGIARI BURUZKO OHARRA

2020ko DAMIren helburu orokorra da administrazio publikoek eta erabiltzaile ugari –besteak beste, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeek– egiten duten informazio-eskaerari erantzutea, eta, horretarako, oinarri estatistiko bat ematea, desgaitasuna duten pertsonentzako politikak planifikatzeko, autonomia pertsonala sustatu eta mendetasun-egoerak prebenitu ahal izateko.

Inkesta desgaitasuna duten eta maila nazionaleko edo autonomia-erkidegoetako etxeetan bizi diren pertsonen kopurua kalkulatzeko diseinatuta dago, bai eta jardueran dituzten mugak eta haien intentsitatea ezagutzeko ere. Muga gainditzeko laguntza tekniko edo pertsonalen erabilera edo beharra ikertzen du

Lagina 67.500 etxebizitza ingurukoa da (2.200 Nafarroan). Datuak haztatu egin dira, maila nazionalean eta autonomikoan adierazgarriak izateko. Desgaitasunaren ezaugarrien azterlanak sei urteko eta gehiagoko biztanleak izan ditu ardatz, adingabeen kasuan lagin-tamaina oso txikia baita.

Inkesta mota: estatistikoa, maiztasun irregularrekoa.

Biztanle-eremua: familia-etxebizitzetan bizi diren bi urteko eta gehiagoko biztanleak.

Eremu geografikoa: lurralde nazional osoa

Emaitzak zer eperi dagozkion: 2020ko abuztua - 2021eko urria.

Laginketa mota: etapa biko laginketa, lehen etapako unitateen estratifikazioarekin. Lehen etapako unitateak zentsu-sekzioak dira, eta bigarrenekoak, familia-etxebizitza nagusiak. Etxebizitzen barruan, ez da azpilaginketarik egiten, eta ohiko bizilekua etxebizitza horietan duten pertsona guztiei buruzko informazioa biltzen da.

Biltzeko metodoa: webeko galdetegia, elkarrizketa pertsonala eta telefono bidezkoa galdetegi elektronikorekin. Bilketak bi fase izan ditu. Lehenengo fasearen helburua izan da desgaitasuna duen pertsonaren bat bizi zen etxeak detektatzea, etxeko galdetegi baten bidez; bigarren fasearen helburua izan da desgaitasuna duten pertsonen buruzko informazioa jasotzea, eta, horretarako, banakako galdetegiak erabiltzea.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta (DAMI). 2020. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00